

ERRESOLUZIO HANDIKO OSPITALEKO EBAKUNTZA-GELATIK



Beato Tomás de Zumarraga, 10 kalea bis
01008 - Gasteiz



945 00 90 90

Indizea

1	SARRERA	3
2	GURE KONPROMISOAK	4
3	HITZAURREA	5
	Ospitaleratu aurreko informazioa	6
4	HARRERA	6
	Ospitaleratzea	6
	Paziente kirurgikoa	7
	Bloke kirurgikora sartzea	7
	Ebakuntza-gelan	8
5	OSPITALEKO ALTA	9
6	INFORMAZIO OROKORRA	9
	Egiaztagiriak	9
	Gomendioak	9
	Eskubideak eta betebeharrak	9
	Informazio Estekak	10

1 SARRERA

Nola identifikatu zure osasun-laguntzako taldea:

Kolore-kode bat erabiltzen dugu gure uniformeetan, Klinikako osasun-taldeko pertsonak erraz identifika ditzazun. Gure izena daramagu txartel batean, baita "e" identifikazio-ikurra ere, azkar identifikatu ahal izateko norekin hitz egin dezakezun euskaraz. Ikur hori laneko arropetan eta lanpostuetan erabiltzen da.

ERIZAINA (urdin argia), **EZOT** (erizaintzako zainketa osagarrietako teknikaria - arrosa), **ETE** (erradiologiako teknikari espezialista - morea), **MEDIKUA** (zuria), **FISIOTERAPEUTA** (urdin iluna), **ADKZ** (Administrazioko eta Dokumentazio Klinikoko Zerbitzua - itsas urdina), **GARBITZAILEAK**, **TALDE KIRURGIKOA** (urdin iluna), eskoletako eta fakultateetako **IKASLEAK** (zuria).





2 GURE KONPROMISOAK

Mutualiaren xedea pertsonen osasunerako, segurtasunerako eta ongizaterako eskubidea bermatzea da Gizarte Segurantzarekin lankidetzan, jarduketa-erreferentzia gisa gure balioak hartuta (**hurbiltasuna, efizientzia, profesionaltasuna, abangoardismoa, gardentasuna eta taldea**), konfiantzazko mutua jasagarri bat izateko, zerbitzu aurreratuen kalitateagatik eta tratabide gizatiarrarengatik ezaguna.

Mutualian badakigu zer aldaketa eragiten dituen ospitalean egoteak, bai zuri, paziente gisa, baita zure familiari ere.

Klinikako langileek egunero lan egiten dute zuri arretarik, tratamendurik eta zainketarik onenak emateko. Hizkuntza-politika ere gogoan dugu, eta gure zerbitzuak hizkuntza ofizialetan eskaintzen ditugu.

Osasun-arloan, *batzorde izeneko* lantaldeak daude, hainbat profil profesionalez osatuak, eta ospitalean zauden bitartean arretarik onena jaso dezazun lan egiten dute.

Gida honen lanketan, lantalde hauek parte hartu dute:

- | | |
|---|--|
| ▣ Osasun Laguntza Pertsonalizatzeko Batzordea. OLPB | ▣ GJHen Batzordea (pertsonek garapenerako helburuak) |
| ▣ Bezeroen Segurtasunerako Batzordea | ▣ Dibertsitate Batzordea |
| ▣ Infekzioetako Batzordea | ▣ Irudia - Komunikazioa |
| ▣ Farmaziako Batzordea | ▣ Euskara Taldea |
| ▣ Larrialdietako Batzordea | ▣ Zaurien Taldea |
| ▣ Irakaskuntza, Prestakuntza eta Ikerketa Batzordea. IPIB | ▣ Irudi bidezko Disgostikoaren Batzordea |
| ▣ Etika Batzordea | ▣ Eskuen Higienarako Batzordea |



OSPITALERA JOAN BEHAR DUZUNERAKO

3 HITZAURREA

Mutualian badakigu zer aldaketa eragiten dizuen ospitalean egoteak bai zuri, paziente gisa, baita zure familiari ere. Klinikako langileek egunero lan egiten dute zuri arretarik, tratamendurik eta zainketarik onenak emateko.

Hobekuntza-iradokizun guztiak garrantzitsuak dira; beraz, egonaldia amaitzean, gogobetetze-inkesta bat bidaliko dizugu telefono mugikorrera, egokitze jotzen dituzun hobekuntza-arloak proposatu ahal izateko.

Mutualiak bermatzen du datu pertsonal guztiak indarrean dagoen legearen arabera tratatzen direla (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babestekoa).

Dokumentu honetan, prozesu osoa nolakoa izango den azalduko dizugu, ospitaleratzea ahalik eta erosoena izan dadin.

Prozesu osoa nolakoa izango den azalduko dizugu; hala, urratsak aldeztu aurretik ezagutuko dituzu, eta horietan aurrera egiten lagundu ahal izango duzu.

Etorri aurretik, gogoratu:

- ▣ Jarraitu anestesia-taldeak eta **Bitartekotzarako Osasun** Unitateak emandako **jarraibideei**.
- ▣ Patologia kronikoren bat tratatzeko medikazioa hartzen baduzu, gogoratu Osakidetza **Tratamendu Aktiboaren orria** ekarri behar duzula.

Erresoluzio Handiko
Ospitalean zauden bitartean
zure egonalditik **paseo bat**
eman nahi duzu'?





OSPITALERATU AURREKO INFORMAZIOA

Ospitaleratu aurretik, **Bitartekotzarako Osasun Unitateko (BOU) erizainak** ospitaleratze-arauak eta klinikaren funtzionamendua azalduko dizkizu, eta **xaboi antiseptikoa** eta ongiatorriko nezeser bat emango dizkizu.

Eskuragarri dituzun laguntzei eta prestazio ekonomiko eta sozialei buruzko informazioa ere emango dizu.

Telefonoz deituko dizu alta eman eta hurrengo egunean, etxean izan duzun bilakaerari buruz galdetzeko, eta harremanetarako telefono bat emango dizu, zalantzak eta galderak argitzeko.

4 HARRERA

Egun berean egiten da, beheko solairuko mostradorean. Zure **segurtasunagatik, eskumuturreko** bat jarriko dizugu zure datu pertsonalekin; datuak zuzenak direla egiaztatu behar duzu, eta eskumuturrekoa beti jarrita izan

Zalantzarik izanez gero,
BOU-arekin hitz egin dezakezu
***Bitartekotzarako Osasun Unitatea**

behar duzu ospitalean alta eman arte, behar bezala identifika zaitzagun eta arreta egokia eman diezazugun.

Harrerako langileek esango dizute korridorearen amaierako itxarongelara joateko, eta han itxaron beharko duzu, ebakuntza-gelako osasun-langileek deitu arte.

OSPITALERATZEA

Deitzen dizutenean, ebakuntza-gelako langileek oinetako babes batzuk emango dizkizute, ospitalizazio-eremura sartu ahal izateko. Barruan zaudela, aldagelara lagunduko dizute, eta, han zaudela, kamisoiak jantzeko eta ohean jartzeko esango dizute.

Osasun-langileek bizi-konstanteak hartuko dizkizute, eta ebakuntza-eremua prestatzeko ekingo diote. Horretarako, operatu beharreko eremuko ilea moztuko dizute, makina elektriko bat baliatuz, **operatu beharreko gorputz-adarra "X"** batez markatuko dizute, lateralitatea adierazteko, eta oihal berde esteril batez estaliko dizute ebakuntza-eremua.

Ondoren, erizain-taldeak **galdera batzuk** egingo dizkizu (datu pertsonalak, alergiak, medikazioa, baraurik zauden...). Bitartean, bide periferiko bat jarriko dizute, eta suero-terapia ematen hasiko dira.





Hori egin ondoren, ohean egon behar duzu, ospitaleko langileek bloke kirurgikora eraman arte, ohe batean edo gurpil-aulkian.

Zure laguntzailea **ezin da egon ospitalizazio-eremuan**; beraz, eremu komunetan egon daiteke, ebakuntza amaitu dela jakinarazten dioten arte.

Azpiko arropa ekartzea **gomendatzen dizugu**, eta bitxiak eta balio handiko beste objektu batzuk ez ekartzea, ospitaleak ez baitu bere gain hartzen artikulua horiek galdu edo hondatzearen ardura.

PAZIENTE KIRURGIKOA

Gogoan izan oso garrantzitsua dela anestesia-taldeak eta BOUK emandako jarraibideak betetzea.

Honakoren bat baduzu, **kendu egin behar duzu**: hortz-protesia, entzumen-protesia, lentillak, betaurrekoak, piercinga, eraztuna, katea, erlojua, ordeko azazkalak edo azazkal-esmaltea.

Hilekoa baduzu, konpresak bakarrik erabili; ez erabili ez tanpoirik, ez kopa menstrualik.

Ebakuntza kirurgikoaren bezperan eta egunean, erizainek aldeztu aurretik emandako xaboi antiseptikoarekin dutxatu behar duzu ebakuntza egin behar dizuten eremua ondo garbituz, eta ez duzu kremarik, desodoranterik edo makillajerik eman behar.

Tratamendu kronikoa edo aldeztu aurretik agindutako medikazioa baduzu, anestesia-zerbitzuak emandako jarraibideak bete behar dituzu.

Ebakuntza kirurgikoan osteosintesiko materialen bat edo protesi bat txertatuz gero, **Inplanteen Pasaporte**a emango dizute, material txertatuaren informazioa jasotzen duena.

Behar izanez gero, tratamendurako behar dituzun gailuak eskura jarriko dizkizugu, hala makuluak edo gurpildun-aulkia kasu.

BLOKE KIRURGIKORA SARTZEA

Prestatu ondoren, bloke kirurgikora ekarriko zaituzte, **zure ohean** edo **gurpil-aulkian**, anestesia-taldeak adierazitakoaren arabera.

Adieraziko dizugu nola jarri behar duzun ebakuntza-gelako esku-ohera **aldatzeko**.





EBAKUNTZA-GELAN

Pegatina batzuk eta askotariko **kableak** jarriko dizkizugu, zure bizi-konstanteak zaintzeko.

Egingo **dizuten** **kirurgia-motaren arabera**, teknika anestesikoa desberdina izango da. Ebakuntza-eremuan zitada bat edo batzuk emango dizkizugu, bizkarrean zitada bat emango dizugu edo medikazioa jarriko dizugu serumaren bidez.

Gerritik behera lokartu behar bazaituzte (**anestesia intradurala**), alde batera begira edo eserita jarriko zaitugu, bizkarrezur lunbarrean anestesia errazago emateko.



Bi kasuetan, **behar bezala jartzen lagunduko** **dizugu**.



Medikazioa emango dizugu **erlaxatzen** laguntzeko. Saiatu ez mugitzen, batez ere zitada nabaritzen duzunean.

Ebakuntza hasi aurretik, baliteke guk zu hainbat aldiz mugitu behar izatea, **posizio egokian** jartzeko.

Urrats guztiak azalduko dizkizugu, eta une oro **lagunduko zaitugu**.

Operazioak iraun bitartean etengabe **zainduko zaitugu**, eta lasai eta eroso egon **zaitezten arduratuko gara**.

Ebakuntza egin ondoren, lehen zeunden **gelara** eramango zaitugu berriro; ohera aldatuko zaitugu, eta eroso jartzen lagunduko zaitugu.

Zure bizi-konstanteak kontrolatuko **ditugu**, eta, behar izanez gero, mina kontrolatzeko medikamentua emango dizugu.



DBLOa betez, ezin diogu inori eman zure gelaren zenbakia

5 OSPITALEKO ALTA

Txosten bat emango dizute, etxerako jarraibideak jasotzen dituenak.

Hartu beharreko **mediakzioaren argibideak**. Errezetak emango dizkizugu.

Errehabilitaziorako jarraibideak, hala badagokio.

Hurrengo hitzorduak.

Beharrezkoa bada, Mutualiak **etxera joateko laguntzarik behar duzun** aztertuko du.

Medikuen irizpideari kontra egin eta borondatezko alta eskatzen baduzu, "borondatezko alta" dokumentua sinatu beharko duzu.

6 INFORMAZIO ROKORRA

EGIAZTAGIRIAK

Laguntzaileei ospitaleratzearen eta ebakuntza kirurgikoaren **egiazttagiriak** emango zaizkie; beheko solairuko harreran eskatu behar dira, edo mediku arduradunari, hala badagokio.



GOMENDIOAK

Pazienteei eta laguntzaileei gomendatzen zaie gelako **antiseptikoa banatzeko makina** erabiltzea eskuak garbitzeko eta infekzioak saihesteko.

Isiltasuna garrantzitsua da gaixoa bere onera etortzeko. Gainerakoen atsedena ere errespetatu.

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Mutualiako paziente eta erabiltzaileei zuzendutako eskubide eta betebeharren karta bat dago. Karta hori Ospitalizazio Unitateko horman ikus daiteke, baita QR kode honetan ere.



Eskubide eta betebeharren karta



INFORMAZIO ESTEKAK

Educator programa:

<https://www.mutualia.eus/es/educator/>

Mutualiako web guneko esteka:

<https://www.mutualia.eus/es/>

Zentruen sarea:

<https://www.mutualia.eus/es/red-de-centros/>

Mutualiako APPa

Mutualiaren APPa deskargatzera

animatzen zaitugu, zure osasuna modu erraz eta intuitiboan kudeatzen lagunduko dizuna, datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz.

<https://www.mutualia.eus/es/app/>





mutualia
